

IRULEGIKO ESKUAREN inguruan sorturiko nahasteari begira



Juan Martin Elexpuru Arregi. 2024ko maiatza

Aurkibidea

IRULEGIKO ESKUAREN inguruan sorturiko nahasteari begira	3
---	---

1.- <i>Fontes</i> -en azken alean argitaratutako artikuluko berriak.....	4
Artikuluak burutzeko metodo eztabaidagarria.....	4
2.- Bisitariei ongietorria emateko objektua ala etsaiari moztutako gerra trofeoa?...	5
3.- Baskonikoa, iberiera, ala hizkuntza ezezagunen bat?.....	6
4.- Irakurketa arazoak.....	7
Herskariak.....	7
Dardarkariak.....	7
Marren gainean puntuak.....	7
T baskoia?.....	8
Aldaketak azken garbiketaren ondoren.....	8
5.- Beste ikerle batzuen interpretazioak.....	9
6.- Lerroz lerro.....	10
1. <i>lerroa</i>	10
Lakarraren iritziak.....	10
<i>zorioneku</i> eta <i>zorioneko</i> ezin omen dira gauza bera izan.....	11
Lehen lekukotzaren data, pisu handiko datua?.....	12
<i>sorioneku</i> ala <i>sorioneko</i> ?.....	13
<i>sorioneku/ke</i> -ren interpretazio ezberdinak.....	13
2. <i>lerroa</i>	14
kuneker' ala tenekebe?.....	15
ekir'ater'e/ n.....	17
3. <i>lerroa</i>	17
oTir'tan · eseakar'i.....	18
ese akar'i ala esea kar'i?.....	19
4. <i>lerroa</i>	20
e r' a u k o n.....	20
7.- Ez da lehen aldia irakurketan tranpak egiten direna. IVILIA eta IBARRAREN kasuak	21
Ivilia ' <i>Tutela</i> ' da, eta Ibarra ' <i>Reburus</i> ' ziurrenik. Ivilia eta Ibarra kondenatuak -a	
artikuluak daramatelako.....	22
IVILIA.....	22
IBARRA.....	24
8.- Martinez Areta eta Euskalduntze Berantiarra.....	25
9.- Ondorioak: bakoitzak bereak.....	25
Eskuaren sinbologia.....	25
Eskuaren hizkuntza.....	26
Testuaren interpretazioa.....	27
BIBLIOGRAFIA.....	29
Eranskina: <i>Iruña-Veleiaren itzal luzea</i>	31
Neure uste batzuk Irulegiko Eskuaz.....	32
Bi kasuen arteko antzak eta diferentziak.....	34
"Urak eta egiak bere bidea egin ohi dute, lehentxeago edo geroxeago".....	35

IRULEGIKO ESKUAREN inguruan sorturiko nahasteari begira

Lan honen helburua *status quaestionis* bezalako bat egitea da eta horretarako orain arteko proposamenen laburpen bat egiten saiatuko naiz. Unibertsitate esparrutik zein haren kanpotik etorritako proposamenak dira. Azkenean neure uste batzuk ere aletuko ditut. Hau guztia jakinik oso testu zailaren aurrean gaudela, ziurtasunak gutxi direla eta hipotesien eta espekulazioen munduan gabiltzala. Aurkikuntza berriak beharko dira garai hartako euskal testuak zuzen samar interpretatu ahal izateko.



Argazkia eta irudia: Aranzadi Zientzia Elkartea. Euskal Wikipediatik jasoa; pdf-a handitzen bada, hobeto ikusten dira marrak eta puntuak.

2024ko urtarrilaren 7an titular hauek irakurtzen genituen Berrian, Iñigo Astiz kazetariaren kronikan: “Euskarak irrist egiten dio Irulegiko Eskuari. Pieza aurkeztu eta urtebete pasara hasierako hipotesiak zorroztu dituzte adituek, eta, hainbat hizkuntzalariren hitzetan, oraindik ere ezin da baieztatu testua euskaraz edo euskararen ahaide batean idatzita dagoenik”. Harritu bai, baina gehiegi ere ez ginen harritu; *déjà vu* usaina hartu genion notiziari. Oraingoak urtebete inguru behar izan du lehertzeko, Iruña-Veleiakoak bi urte pasatxo.

“Y nuestro objetivo principal era hoy precisamente asegurar a esa comunidad científica *que es verdad, que no es un fraude*, que han aparecido unas leyendas escritas en alfabeto latino sobre material cerámico básicamente, aunque también hay vidrio y hay huesos, con leyendas en vasco antiguo” (J. Gorrochategui, 2006ko ekaina). “Idazkun guztiak faltsuak dira” (Batzorde Zientifiko Aholkularia, 2008ko azaroa).

Protagonista berberak, gutxi gora behera. Nolanahi ere, gaitzerdi; idazkuna benetakoa omen da. Behintzat zerbaitetan aurreratu dugu.

1.- *Fontes-en azken alean argitaratutako artikulu berriak*

Nafarroako Gobernuak argitaratzen du *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari zientifikoa. EHU ikasitako Ekaitz Santazilia filologo gaztea da egungo zuzendaria. 2023ko azken alean bederatzia artikulu agertzen dira Irulegiko Eskuaz. [Hemen](#) bila daitezke. Egileak: 1) Joaquín Gorrochategui (EHU)-Javier Velaza (Bartzelonako Unibertsitatea). 2) Francisco Beltrán Lloris (Zaragozako Unibertsitatea). 3.- Joan Ferrer i Jané (Bartzelonako Unibertsitatea). 4) Eduardo Orduña Aznar (aragoitarra, Pont de Suert-eko institutuko irakaslea). 5) Ivan Igartua (EHU). 6) Eneko Zuloaga-Borja Ariztimuño (EHU). 7) Julen Manterola-Céline Mounole (EHU). 8) Joseba Lakarra (EHU). 9) Mikel Martínez Areta (EHU). Zortzi gazteleraz daude eta bat ingelesez, Manterola eta Mounole-rena.

Artikuluak burutzeko metodo eztabaidagarria

Sarreran irakurtzen dugunez, 2023ko otsailean Gasteizen egindako mintegian hartu zen txostenak idazteko erabakia. Orduko argazkia dator artikulgile ia guztiekin. Goiko zerrendan ikusten denez, bederatzitik sei EHuko kideek eginak dira. Honi editorea gehitzen badiogu, jabetuko gara bederatzia EHuko kidek hartu dutela parte, kanpoko lau iberisten laguntzaz. Iberista horiek ere oso hurbilekoak dituzte EHutar batzuek, *Paleohispánica* aldizkarian eta abarretan parte hartzen baitute batzuek eta besteek. Hau endogamia ez bada, antz handia du.

Bestalde, irakurketatik ondorioztatzen da txostengile guztiek izan dutela beste txosten guztien berri publikatu aurretik, eta besteenak irakurri ondoren errematatu duela bakoitzak berea.

Ferrer i Jané: “Subscribo casi en su totalidad la lectura del texto trazado realizada por Gorrochategui y Velaza en este dossier (2023)” (517). **Orduña :** “En mi opinión, que coincide con la de Gorrochategui y Velaza (2023) en este dossier” (542). **Lakarra:** “*Zorioneko* no parece ser la única voz de la familia que resulta inverosímil –cf. el informe de Manterola y Mounole (2023)” (604). **Ariztimuño-Zuloaga:** “Por lo que respecta a la lectura *Sorioneku/Sorioneke* ‘afortunado, dichoso...’, no podemos sino coincidir con la lectura que ha hecho Joseba A. Lakarra en este mismo dossier (2023)” (572). Eta horrela beste guztiak. (*Aipuen ondoren agertzen den zenbakiak Fontes-eko orrialdea adierazten du*).

Nabarmen geratzen da, ez dago ezkutatzeko asmorik. Horrek pentsaraztera garamatza, metodo ona izateaz gain, ohiko praktika dela unibertsitate giroan. Egia esan, ez dakit horrela den filologian ala esperimendu bat izan den hau. Beste arlo batzuetan ez da horrela jokatzeko, eta gutxiago zerbaiti buruz eztabaida sakona dagoenean.

Arkeologian, artean eta abar laborategi ezberdinetara jo ohi da pieza baten izaera, benetakotasuna edo antzinatasuna erabaki nahi denean, eta irizpide sakratua izaten da elkarren berri ez izatea. Esku arteko kasura etorrita, jakinda nolako hierarkia dagoen unibertsitateetan, eta arloko katedratiko baten iritzien aurka jotzeak nolako ondorioak ekar ditzakeen irakasle edo doktoregai batentzat, ez dirudi metodorik onena. “No podemos sino coincidir...”.

Adiskide batek eman digu duela 167 urte idazkera kuneiformez idatzitako akadiera deszifratzeko zein bide erabili zen azaltzen duen Elena Torresen artikuluaren berri. Hona hemen artikuluaren sarrerako laburpena:

“El desciframiento del acadio fue aceptado oficialmente por la Royal Asiatic Society el 29 de mayo de 1857. El proceso fue un largo viaje en el que tomaron parte muchos estudiosos, culminando en los trabajos de Edward Hincks y Henry C. Rawlinson. Pero las bases de la escritura cuneiforme y el método aplicado para descifrarla toparon con el escepticismo académico. Para disiparlo, la Royal Asiatic Society realizó una prueba en la que participaron

cuatro asiriólogos: Hincks, Rawlinson, Oppert y Talbot. Los cuatro eruditos debían traducir independientemente y sin contacto entre ellos una inscripción hallada recientemente en Qalat Shergat: el prisma de Tiglat-Pileser I. La comparación de las cuatro traducciones demostró que el método de Hincks y Rawlinson era correcto, y el desciframiento fue finalmente reconocido” (Torres 2007, 77).

2.- Bisitariei ongiatorria emateko objektua ala etsaiari moztutako gerra trofeoa?

Alde ederra dago! Lehen interpretazioa eman zitzaion hasieran, nahiz eta bestea ere aipatu zuten hipotesi gisa. Objektu *apotropaikoa* zela, bisitariari ongiatorria edo/eta etxeari babesa ematen ziona (egon da eguzki-lorearekin alderatu duenik ere). Eta gehiegi trabatu gabe *apotropaiko* esaten ikasi dugunean, ezetz, ez dela hori: **Beltranek** aztertzen du gaia “Una mano cortada” izeneko artikulu monografikoan:

“Puede concluirse, por lo tanto, que la amputación de la extremidad diestra del enemigo y su exhibición como trofeo está perfectamente atestiguada coetáneamente a la mano de Irulegi entre dos poblaciones vecinas, celtíberos e iberos, con las que los vascones mantuvieron intercambios fluidos en muchos terrenos. Este contexto guerrero es el que mejor encaja con la mano de Irulegi, invertida y carente de muñeca como los ejemplares de El Palao, La Vispesa y Puyalcalá. [...] En definitiva, la interpretación de la mano de Irulegi como una extremidad cortada a modo de trofeo de combate aconseja situar la interpretación del texto dentro de unos parámetros compatibles con el ambiente guerrero que se desprende de la iconografía del soporte” (512).

Egia da Beltranen aurretik Eduardo Aznarrek seinalatua zuela aukera hau hilabete batzuk lehenago argitaratutako artikuluan:

“Oraingoz esku hauen interpretazioa ez da erabat segurua, baina ikerlari batzuek (esaterako, Velazak berak) pentsatu izan dute hildako etsaien esku ebakien irudikapenak izan zitezkeela, trofeo edo suntsitzeko gaitasunaren sinbolo gisa. Zutarri hau ez bide zen ustezko hilobi baten parte, ezpada tenplu edo saildutegi baten elementua, gerrari iberiko garrantzitsu baten boterea nabarmendu nahi zukeena. [...] Une honetan aieru hutsen arloan mugitzen gara, baina, iritzia galdetuko balidate, esango nuke zuhurtasunez La Vispesako helburu militarra eta hilketaren zalea Irulegikoan errepikatu litekeela” (Aznar Martínez 2023: 34).

Kontuak kontu, ematen du Fontes-eko txostengile gehienek bat egiten dutela Beltranen interpretazio berriarekin. Galde genezake nora begira egon ziren lehen interpretazioa egin zuten filologo eta arkeologoak hipotesi hori baztertzeko. Eta orain bete-betean sinetsi behar da? Oso sinbologia ankerra da etsaiari moztutako eskuaren irudia ateburuan jartzea, nik ez dakit nola lotu daitekeen *zorion* kontzeptuarekin eta erdi ulertzen diren beste hitzekin. Luis Silgo Gauche arkeologo eta iberista valentziarrarekin kontsultatu dugu gaiaz eta zera erantzun digu:

“He leído el artículo de Beltrán que me parece muy flojo. Precisamente de los tres monumentos con manos que cita de Aragón las manos fueron interpretadas como signos de protección, siendo indiferente que apareciese también figurado un guerrero. Los textos literarios que presenta se refieren a manos humanas, no objetos muebles.

Es ilógico que un trofeo de guerra consistente en una mano humana se convierta en un objeto mueble, ya que este se realiza en la misma población y no es propiedad del enemigo. Un trofeo de guerra es algo arrebatado al enemigo, no de fabricación propia. Las manos en monumentos funerarios que menciona, aunque él lo calle, han sido consideradas hasta ahora como signos de protección, como ya he dicho. Por todo esto me parece muy frágil la hipótesis de Beltrán que viene a oponerse a la ya conocido.

La presencia de la palabra SORIONEKU excluye que se trate de un trofeo de guerra. Ya el carácter apotropaico de la mano fue señalado por los descubridores, En conclusión me parece perfectamente prescindible la hipótesis de Beltrán” (komunikazio pertsonala, 2024-02-02).

Ematen duenez, dossier bereko beste iberista bat, **Ferrer i Jané**, ez dator bat Beltránen iritziarekin:

“Con respecto al texto, me sumo a la propuesta de interpretarlo como un texto cultural: religioso o apotropaico. En particular, me parece plausible la interpretación de **sorion** como una divinidad relacionada con la ‘buena fortuna” (535).

3.- **Baskonikoa, iberiera, ala hizkuntza ezezagunen bat?**

Hala ere ez dugu pentsatu behar ikerle guztiak eta txosten guztiak ondorio berdinetara heltzen direnik. Iruditzen zait prentsa titular batzuk sentsazionalista samarrak izan direla eta ez dutela ondoegi islatu txostenen mamia. Esaterako, Gorrochateguik eta Velazak *baskonikoz* idatzia dagoela defendatzen jarraitzen dute, irakurketan aldaketak egin badituzte ere. Adierazgarriak izan dira eibartarrak irratian egindako adierazpenak txostenak eta Astizen kronika agertu eta gero; funtsean jatorrizko bertsioari eusten diote: *baskonikoa* da I Eren hizkuntza. SORIONEKE irakurketa hobesten dute orain, baina ez dute zalantzan jartzen *zori* ‘suerte’ eta *on* ‘bueno, -a’ dituela hitzak barnean. Jainko-jainkosaren bat izan omen zitekeen *Zorion*, erromatarren *Fortuna*-ren bertsio baskonikoa edo. Eta *-ke* datiboa, nori dedikatua. Xeheago jardungo honetaz beherago.

Bakoitza bere argudio eta bere estiloarekin, baina Ferrer i Jane-k, Orduñak eta Beltránek ere *baskonikotzat* daukate idazkuna, nahiz eta, iberistak izaki, iberieraren zantzuak ere aurkitzen dizkioten, eta iberiera-euskara ustezko harremana azpimarratzeko baliatzen duten.

Lakarrak *Sorioneku*, *-e* hitza aztertzen du soilik. Fermuki defendatzen du, zalantzari zirrikiturik utzi gabe, *zorioneku* zein *zorioneke* ezinezkoak zirela duela hogeita bat mende. Ez hori bakarrik, *zorion* ere ezinezkoa zen. Lerroz lerro joaten garenean garatuko dugu puntu hau. EHUko irakasleen beste lau txostenek ez dute ezbaian jartzen Lakarraren puntu honekiko sententzia, eta eurak dira zalantza gehien plazaratzen dituztenak eskuaren hizkuntzari buruz:

“Siempre quedará la posibilidad teórica de que la inscripción represente una lengua o variedad lingüística de la que no tenemos conocimiento ni constancia y que, en el mejor de los casos, incorpora algún elemento aislado procedente de otras lenguas que presumiblemente se hablaron en el entorno geográfico en el que se ha encontrado la pieza” (**Igartua**, 560). “Los problemas estructurales para explicar los textos de la Mdl a través del euskera o del protoeuskera son muchos y generales: se repiten en todos los elementos” (**Ariztimuño-Zuloaga**, 577). “Our preliminary conclusion is that the Basque Interpretation Hypothesis is not conclusive and that the Basque filiation of the text cannot be ascertained” (**Manterola-Mounole**, 593).

Laburtuz, Eskuaren lehen aztertzaileek (**Gorrochategui-Velaza**) lehengoari eusten diote gutxi gorabehera hizkuntzari dagokionean, euskal herritarrak ez direnek (**Ferrer, Beltran, Orduña**) baskonikoz dagoela diote, iberieraren ukituekin, eta EHUko euskaldunek zalantza handiak agertzen dituzte idazkunaren hizkuntzaz, eta ez dagoela baskonikoz iradokitzen dute.

borobiltzea puntuak ezarriz, Ferrer i Janek¹ eta beste batzuk iradokitzen duten moduan. Zentzunak diosku (guri behintzat) pertsona bera izan zela idazkuna egin zuena, lehenik zeinuak trazatu zituela gida gisa eta gero puntuatu egin zuela gainean, marratzeko orduan geratutako hutsuneak betez. Bertsio marratuan osatu gabe utziko zituen zeinu banaka batzuk, gero puntuatzerakoan burutu zituenak.

T baskoia?

Hirugarren lerroko **oTir'tan** hitzak zeinu-sistema iberiarrean ia sekula² erabiltzen ez den letra bat darama, T hain zuzen. Zein ote bere balioa? Zera dio Euskal Wikipediak *Idazkera Baskonikoa* artikuluan:

“T itxurako hizkia: N gisa ulertu izan da. Tradizionalki "Unambaate" eta "Ontikes" gisa irakurri izan diren txanponen legendetan agertzen da, eta Irulegiko Eskuan. Eduardo Orduñarentzat afrikatu bat idazteko erabil zitekeen; "ts" eta "tz" aipatzen ditu eta tz da aukera gehien dituen”.


Hau da Orduñaren proposamena, argudiaketa luzearen ondoren:

“En definitiva, la propuesta es que **uTanba ate** sería */utzama ate/*, es decir, algo así como *Uxama Puerto*, sintagma en el que **ate**, pese a ser un nombre, estaría usado en un sentido adjetival, lo que justificaría su segunda posición, como los determinantes en *Uxama Argaela*, *Uxama Barca* (2018, 140).

Hirugarren lerroa aztertzean itzuliko gara gaira. Eta azkenik, beste arazo ezagun bat: antzinako idazkeretan hitzak bata bestearen jarraian idazten dira ia beti, gutxitan daude tartekak edo interpuntzioak, eta askotan zaila da jakitea non amaitzen den berba bat eta non hasten den hurrengoa. Beste zailtasun handi bat da irakurketarako.

Aldaketak azken garbiketaren ondoren

2023ko udan berriz garbitu zen pieza, eta ondorioz bigarren lerroaren irakurketa aldatu dute: **d/teneke** irakurtzen zen lekuan **kuneke** irakurtzen omen da, eta hurrengo zatian ere, bertsio puntuatuan aldaketarik ikusten ez duten arren, esgrafiatuan bada zerbait, azpiko koadroan ikus daitekeen bezala. Bide batez esango dugu argitaratu duten argazkia txarra dela eta oso ilun ikusten dela dena.



Gorrochategui-Velaza. *Fontes* 2023: 498-499

¹ “A mi parecer, la explicación más simple de las discrepancias entre los dos textos es que hayan sido realizados por personas diferentes, siendo el segundo solo responsable del trabajo mecánico del punteado, sin intención ni, probablemente, conocimientos para corregir al primero, por lo que solo se debería considerar la existencia de un texto: el trazado.” (Ferrer i Jané 518).

² Can Rodón-go fusaiolako alfabetoan agertzen da, besteak beste (Ferrer i Jané 524).

<i>Bertsio esgrafiatua</i> sorioneke kuneker'ekir'ater'e/ n oTir'taneseakar'i e r' a u k o n	<i>Bertsio puntuatua</i> sorioneku · kunekebeekir'ater'e/ n oTir'tan · eseakar'i e r' a u k o n ·
--	---

Gorrochategui-Velaza. *Fontes* 2023: 498-499

Ez da ahaztu behar lehendabizikoan berdin irakurri zutela bertsio esgrafiatua eta puntuatua eta bigarren lerroan **tenekebeekirateré/ n** ikusi zutela.

5.- Beste ikerle batzuen interpretazioak

Unibertsitate eremuan burutu diren interpretazioez gain, beste asko ere egin dira, eta Interneteko atari ezberdinetan ikusi dute argia. Euskeraren Jatorriak pdf bat argitaratu du 2023ko urrian eginiko Biltzarrean Eskuaz bildutako artikuluekin. [Hemendik](#) jaitsi daiteke. Hemezortzi dira denera, horietatik hamar gazteleraz daude, bost euskaraz, eta hiru gaztelaniaz eta euskaraz. Ezinezkoa zaigu guztiak aipatzea eta arakatzea, eta banaka batzuen iritziak txertatuko ditugu soilik gure iruzkinetan. 1) Juan Inazio Hartsuaga (Tolosa, antropologoa). 2) Bizkaiko Euskal Filologo Taldea (BEFT): Joseba Butroe, Jokin De Pedro, Juan Manuel Etxebarria, Alberto Mardones eta Pilare Baraiazarra. 3) Josu Lavin (Bizkaia, euskalaria). Honen interpretazioaren azken emaitza dator soilik dossier honetan. Dossier honetakoez gain, Joseba Butroe bizkaitarrak bere [atalak.eus](#) webgunean argitaratu duen txosten luzea irakur daiteke, agian orain arte egin den landuena [Irulegiko Eskuaz](#).

6.- Lerroz lerro

1. lerroa



Lehen irakurketa: **sorioneku/ n**. Bigarren irakurketa: **sorioneke/ n**

Lakarraren iritziak

Abstract-ean zera dio: “sorioneku/ke no equivale a *zorioneko* ‘dichoso, feliz’, ni se relaciona con *zorion* ‘dicha, felicidad’. Estos son muy tardíos (comienzos o mediados del XVIII), y difundidos por Larramendi y seguidores en la literatura meridional y ciertos usos orales” (598). Ondorioetan, gauza bera:

“Ni el derivado *zorioneko*, ni el compuesto previo *zorion* existían ni en el siglo I a. C., ni en 1545, ni varias décadas y centurias más tarde, hasta bien entrado el siglo XVIII, y solo se extendieron en la tradición literaria meridional en la segunda parte de este siglo” (606).

Hamasei orrialdetan zehar garatzen du bere tesia. *Zorioneko* oso berantiarra omen da. Esaten du 1658an Harizmendik “*Ama çori onecoa* [‘de buena suerte’]” diola, baina oraindik hitza lexikalizatu gabe zegoela, eta esanahia ere ez dela berdina. Ez du aipatzen Etxeberri Ziburukoak *zorionezko* hainbat aldiz idazten duela, nahiz eta Lakarraren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*-n zera irakurtzen dugun:

“EtxZib (*zori onez bethea*); *zorionean* (cf. goian Etxep *zori honian*, Lazarg *zori onean*); *zorioneko* Harizm; *zorionez* EtxZib (*zori onez iaio ziñen*); *zorionezko* EtxZib” (2019: 580).

Guk geure aldetik bilaketa txiki bat egin dugu Joanes Etxeberri Ziburukoaren obra batean,³ *Armiarma atarian*, eta adibide hauek aurkitu ditugu:

***Zorionezkoa* zare o Birjina noblea./ Alla *zorionezkoa* launaren beldur dena./ *Zorionez* sorthu deithu *zorionezkoa* Birjina gloriosoa.** Loturak [hemen](#) eta [hemen](#). Gogoratu behar Etxeberri Ziburukoa nahiko goiztiarra dela euskal literaturan, liburu hau Axularren *Gero*-ren garaikidea dela, eta honek zein aurreko mendeko Etxeparek edo Lazarragak *zorioneko* ez, baina *zori honian*, *zorigaitzean* edo *zorigatxean* darabiltela. Argudia daiteke *zorionekoa* eta *zorionezkoa* ez direla gauza bera, edota berezita agertzen direla bi elementuak askotan,⁴ hau eta hori. Baina funtsean ez al dira oso

³ *Elizara erabiltzeko liburua* (1636).

⁴ Berezita agertzeak (*zori onean*, esaterako), “lexikalizatu gabe”, alegia, ez du balio handirik argudio gisa. Izan ere, gauza jakina da tarterik gabe idazten zela ia beti iberieraz, eta beraz, “*sori oneku*” ere zatitu daitekeela sekuentzia.

antzekoak? Eskuko *sorioneku/ke-k* (eta ezta *sorion-ek* ere) ez omen du zer ikusirik *zorion* hitzaren esanahiarekin. Orduan zerekin, Lakarra jauna? Ez duzu alternatibarik eskaintzen. Ez al doa zentzunaren kontra zure uko borobila?


Eta horrela borobiltzen du txostena Lakarrak bere ohiko estilo xamur eta begirunetsuaz:

“En conclusión, resulta inaceptable, respecto a *sorioneku/ke* de la mano de Irulegi su Interpretación como ****zorioneko**, incluso otra menos “comprometida” como ****zorion + X**. Seguir por el camino contrario nos llevaría a caer en bongo-bongos y autosugestiones, tanto más desafortunados cuanto que contamos con un corpus nada despreciable aunque no suficientemente conocido, pero con información relevante si nos tomamos la molestia de estudiarlo con la atención que se merece” (613).

Zorion entzutean gaztelerazko ‘felicidad’ en esanahia datorkigu, nonbait, burura, baina horrek ez du kentzen lehenagokoek ‘zorte ona’ rekin gehiago lotzea. Azken batean bi kontzeptuak ez daude elkarrengandik oso urrun. Eta inor gutxik ukatzen du *txori* eta *zori*-ren arteko lotura etimologikoa,⁵ eta zibilizazio askok, tartean euskaldunak, ikusten zuten txorien hegaldien eta zori onaren edo txarraren arteko harremana.

***sorioneku* eta *zorioneko* ezin omen dira gauza bera izan**

Zenbait adituri entzun zaio *sorioneku* irakurriko balitz ere, ezin dela *sorioneko*-rekin parekatu, *-ko* > *-ku* bihurtzea oso-oso berria omen delako. “La <u> final en vez de la <o> común y antigua solo puede interpretarse a la luz de paralelos dialectales (ultra)modernos” (Zuloaga-Ariztimuño, 573). Asko esatea da, <o> eta <u> soinuen artikulazio puntuak nahiko hurbil baitaude, eta bien alternatziaren adibide ugari aurki daiteke.⁶ Ziur asko Ondarroa aldeko *marmittakú* edo *ogerlekú* nahiko berriak izango dira, baina bilakaera horren aurrekaria izan daitezkeen *-oa* > *-ua* gertaerak (*jaungoikoa* > *jaungoikua*) izango ditu bi edo hiru mende gutxienez (Mogelen *Peru Abarka*-n -1802- *jangoikua*, *eragitekuak*, *lurrezkuak*, *erbestekuak*... irakur daiteke). Beraz, hain “(ultra)moderno” ere ez da. Baina jo dezagun fenomeno berri samarra dela. Nolanahi ere, antzinertera joanda, USEKERTEKU aurkitzen dugu Caminreal-go (Teruel) mosaikoan.



Mosaiko honetako idazkunak Andelokoaren (Mendigorria, Nafarroa) antza du:



⁵ Zera irakurtzen diogu Lakarra berari hiztegi etimologikoan: “*zori*-k jatorrian ‘*txori*’ esanahia zukeela onartu ohi da: ohitura zabaldua zen txoriei begiratzea, behaketa horretan seinale edo zantzu modukoak interpretatu eta egoerari edo gertatu beharrekoei antzemateko edo igartzeko. Ohitura hauen bidetik hartuko zuen *zori*-k (*on*-ak edo *gaitz*-ak) ‘zantzu, egokiera, zorte, patu...’ esanahia” (2019: 581).

⁶ Garai erromatarreko toponimian *Calagurris/Calagorina* (Ptolomeo); hau da, *Kalagorri*. Lexiko arruntean: *burruka/borroka*, (*h*)*jun/on*, *ipuin/ipoin*, *emun/emon*, *gatzatu/gatzato*, *santu/santo*, *gustu/gusto*...

Aditu gehienen ustez, *Likine* izenekoa izan zen mosaikoa egin zuen lantegiko burua, bi kasuetan. Nafarroakoan *ekien* (edo *egien*) ‘egin zuen’ ulertzen dute gehienek, eta Teruelekoan *ekiar*-ek ere zentzu bera duela pentsatzen da. Baina hemen inporta zaiguna USEKERTEKU da. *Usekerte*, geroagoko agiri erromatarretan *Osicerda* deitzen zaion hiria, oraindik lekutu gabea, baina lurralde iberiarrean kokatua zegoekena, Ebro ibarrean ziurrenik. Eta adituek diote *Usekerteku*-k ‘Usekertekoa’ esan nahi duela: “*Likine*-te de *Usekerte/Osicerda* lo hizo” itzultzen dute iberistek. Beraz, hemen geneukake *-ku* eta egungo *-ko* baliokideak diren kasua, Irulegikoaren garai berekoa gainera, K.a. 75. ingurukotzat jotzen baita idazkuna, nahiz eta, kasu bakarra izanda, ezin den ondorio borobilik atera. Gainera kontuan izan behar dugu Akitaniako idazkunean ez dugula o/u alternantziarik aurkitu horrelako testuinguruetan. Argitu behar iberikotzat jotzen dela inskripzio hau, baina azkenaldian euskarazkotzat⁷ hartzen den Andelokoarekin lotzen dutela adituek. Ez gara hasiko euskara-iberiera senitasunaz eztabaidatzen, baina garbi dago hari fin batek elkartzen dituela bi hizkuntzak zenbait kasutan.

Lehen lekukotzaren data, pisu handiko datua?

Ez diogu inportantziarik kendu nahi hizkuntzaren diakroniaren azterketari. Horren barruan hitz baten lehen agerpenaren data kontuan hartzekoa da, baina nire ustez ez zaio garrantzi handiegia eman behar, hitza hizkuntzaren ondare zaharrekoa dela dakigunean behintzat, eta ez mailegu berri samarra. Ez dakigu zenbat milaka hitz ezberdin izango dituen euskarak, baina ziur egon horietako asko eta asko (gehienak esatea larregi ote?) ez direla sekula idatziz ipini garai modernoetara arte. Badakigu zein gutxi idatzi den euskaraz historian zehar. Lakarrak argudio berdina erabiltzen zuen behin eta berriz Iruña-Veleiako auzian ere: hitz edo forma hori ez dago dokumentatua ez dakit zenbatgarren mendera arte. Eta hortik ezintasunak eta faltsutasunak eratortzen ziren.⁸

Guri zentzunak diosku lehen lekukotza lehen lekukotza dela, besterik gabe. Ez duela esan nahi hitz hura edo forma hura lehenago erabiltzen ez zenik. Kasu zehatz batzuetan hipotesi edo ondorio serio samarretara heldu ahal izango da hitzaren historia idatzia jarraitzetik, baina beste askotan ez. Hiru adibide atera ditugu EHOtik, adjektiboa, izena eta aditza:


“**Lakar**: Áspero, basto, duro. Documentado en autores guipuzcoanos y vizcaínos a partir de finales del s. XIX. **Lamia, lamina**. Lamia, personaje (normalmente femenino) de la mitología vasca. Atestiguado desde el s. XIX tanto en el Norte como en el Sur. **Zikindu**. Ensuciar(se), manchar(se). Documentado desde mediados del s. XVIII.”

⁷ Velazak aspaldi adierazi zuen euskaraz zegoela, eta duela gutxi Orduña Aznarrek artikulua idatzi du bide beretik: “La inscripción musiva de Andelo: nuevos plantamientos” (Paleohispánica 2023).


⁸ Lakarrak Iruña-Veleiari buruzko txostenean kontaezin ahala aldiz darabiltza “imposible” eta “Imposibilidad” hitzak. Eta “no documentado hasta 1.600 años después”, “Inverosimil”, “insólito en ese contexto”, “solo posibles un milenio más tarde”, “La posibilidad de que algo así se diera en vascuence en la antigüedad es nula”, eta horrelakoak. Dena dela, bere azken kodan abisatzen du faltsutzaileek derrigor ezagutu behar zutela Luis Nuñez Astrain-en *El euskera arcaico* liburua, 2003aren bukaeran agertua, non argitaratu ziren lehen aldiz aitzineuskararen berreraiketan egindako azken aurkikuntzak, Lakarrarenak, hain zuzen. Dirudienez, noiz edo noiz bat datoz bizkaitarraren teoriak eta grafitoetako testuak.

Uste dut inork ez duela zalantzan jarriko hitz hauen antzintasuna, idazkerara berandu heldu arren. Lehen biek toponimian ere utzi dute arrastoa.

- *sorioneku ala sorioneke?*



(pdf-a handitzen bada, hobeto ikusten dira marrak eta puntuak)



Aitortu behar fidakaitzak gabela. Ez dugu pieza aurrez aurre begiztatu, baina argazkietan guk ez dugu inondik inora **ke** ikusten. Esgrafiatuan ere goitik beherako marra bat ageri da, bateragarria ez dena **ke** zeinuarekin (Ik. goian). Ondorioz, **sorioneku** iruditzen zaigu irakurketa bidezkoena.

- *sorioneku/ke-ren interpretazio ezberdinak*

Ez ditugu *Sorioneku*-ren lehen interpretazioak errepikatuko, aski ezagunak baitira. **Gorrochategui** eta **Velaza**: esan dugunez, orain *Sorioneke* irakurtzen dute. *-ke* horretan datiboaren marka ikusten dute, eta *Zorion* izeneko jainko-jainkosa bati eginiko eskaintza, erromatarren *Fortuna*-ren parekoa.

“Pensamos que el epígrafe contiene un texto completo, relacionado con el grave conflicto bélico del momento expresado mediante el símbolo de la mano cortada, que hace referencia al enemigo vencido y por consiguiente a la victoria. En un contexto semejante tendría sentido la dedicación de un exvoto, una ofrenda, a la Fortuna, que como decía Cicerón se arroga todo el protagonismo en asuntos bélicos. Hemos traído a colación el incremento de templos dedicados a Fortuna en Roma en momentos de guerra y como agradecimiento por las victorias cosechadas en las guerras púnicas, celtibéricas y otras. La posición aislada y resaltada del término **sorioneke** al inicio del texto expresaría la entidad a la que se dedicaría la inscripción. Los paralelos de teónimos vascónico-aquitano como *Larrahe*, *Artehe* y especialmente *Herauscorritsehe* con una terminación *-(e)he* de valor dativo apoyan formalmente esta interpretación” (501).

Argudiaketak badu bere koherentzia, nahiz eta begitantzen zaigun ez ote dioten irudimenari libreegi jaregin; dena dela, esandakoak indar guztia galduko luke irakurketa *sorioneku* balitz eta ez *sorioneke*. Gaizki pentsaturen bati burura dakiok irakurketa bortxatu dutela *Fortuna* jainkosarena koadratu ahal izateko.

Fontes-eko txostengile guztiek onartzen dute *Sorioneke* irakurketa; *-ke*-ren balio datiboa ere bai gehienek, nahiz eta **Orduñak** beste proposamen bat egiten duen: “En cuanto al sufijo **-eke**, podría ser una forma de representar *-ek*, el ergativo vasco de los temas en consonante” (546). Esan behar EHUtarrak ez datozela bat Orduñarekin puntu honetan. Izan ere ergatiboaren antzintasuna oso eztabaidatua da giro akademikoetan.

Martinez Aretak galdera hau egiten du: “¿Podría ser s.o.r.i.o.n un antropónimo?” Eta Akitaniako *Bonxorius* dakar gogora, izen bera “pero con los formantes invertidos” izan omen daitekeelako (625).

Txosten “alternatiboetan” **sorioneku**-tik abiatzen dira, nahiz eta gero batzuk hasierako interpretaziotik aldendu. **Hartsuagari** bateragarriak iruditzen zaizkio *zori*-ren bi zentzuak:



“Zorioneko *zori* galdu ondoren ez gara halere umezurtz geratuko, Orotarikoak dioskunez *zorhi* ere badelako zerbait: *Heldua* edo *sasoikoa* esan nahi du. [...] Esanahiaren aldetik, *zorte oneko* ordez *sasoi oneko* jartzeak ez du ematen aldaketa handia dakarkionik, ongi etorriko izan daitekeen mezu abegikor horri” (29).

Bizkaiko Euskal Filologo Taldeak *sorion ekun* proposatzen du:

“Nahiz eta /n/ aparte egon, gure taldeko aditu batek proposatu zuen *ekun*. Baina, zer da? Erronkarierako gure adituak erantzuna: “erronkarieraz *ukan* edo *eduki*”. Eta adibide mordoa ipintzen dute, EHOkok eta beste: “**Ekun** zazu *pazienzia*. (*Ukan*) *En textos roncaleses hay ekun* (EHO). *Hemos tenido muchos niños: Ekun déugu aur ánitx*”. (Euskeraren Jatorriaren dosierra 2023: 82).

Proposamen ausarta iruditzen zaigu, baina arazo bat du nire ustez: itxura batera, N beheko lerroko azken hitzari dagokio eta goiko lerroa igoa izan daiteke espazio faltagatik.

2. lerroa



Gorrochategui-Velazaren lehen irakurketa: **tenekebeekirater'e/ n**. Bigarren irakurketa: **kuneker'ekir'ater'e/ n** (esgrafiatua); **kunekebeekir'ater'e/ n** (puntuatua)

Lerro honek ere irakurketa arazoak ditu. Piezari garbiketa zehatza egin zitzaion 2023ko udan, eta ondorioz Gorrochateguik eta Velazak aldatu egin zuten lehen zeinuaren irakurketa: **te/de > ku/gu**. Eta aurrerago, **be > r** (bertsio esgrafiatuan; puntuatuan berdin geratu da).






Figura 2. El signo 1 de la línea 2, antes y después de la limpieza del bronce.

Garbitu aurretik eta ondoren. Gorrochategi eta Velaza (2023: 497)



Aranzadik 2022an egindako argazkikoa






Iberierako zeinuak (Wikipedia)

Sentitzen dugu baina gauza arraroak nabaritzen ditugu hemen. 2022ko argazkian oso ondo ikusten dira zeharkako puntuak (lau), 2023koan ez. Zer pasatu da? Ez dago zeharkako marrarik, egia da (hor ikusten dena egileak egindako gida-lerroa da). KU izateko, erdian puntu bat beharko luke, eta ez da ikusten. Ikusten direnak lau puntu dira, **beraz, DE/TE eta ez KU, besterik frogatzen ez den bitartean.**

- **kuneker' ala d/tenekebe?**

Ez dira oraindik amaitu irakurketa berriaren arazoak. Orain artekoak gutxi balira, Gorrochategi eta Velazak orain **r'** ikusten dute lehen **be** irakurtzen zuten lekuan. Ikus ditzagun Eskuan agertzen diren zeinuak eta norberak erabaki dezala. Zer da, **be** ala **r'**?





be

í

Begi-bistakoa iruditzen zaigu bi filologoen lehen irakurketa dela zuzena eta ez bigarrena. Ez dut ulertzen nola onartzen duten beste zortzi txostenen egileek bigarren hau. Sinetsi egin dute, besterik gabe? Hori da zientziaren bidea? Azken kasu honetan, gainera, ezin da argudiatu esgrafiatua hobesten dutela, bertsio esgrafiatuan ere **be** irakurtzen baita. **kuneker'** irakurketaz baliatu dira dossier honetako ikerleak interpretazio iberistak bilatzeko:

“La lectura de la versión esgrafiada (**kuneker' e**) permite aislar **k e r' e**, elemento onomástico ibérico bien identificado (**k e r' e**, **g e r' e** [...]) y también aquitano presente en nombres aquitanos como *Gerexo*. [...] ni por nada susceptible de relacionarse con la marca de ergativo del vasco histórico” (Gorrochategui-Velaza: 501).

Tiro batez bi txori, batetik iberierarantz zuzentzen dira begiak, eta bestetik ergatiboaren mamua uxatzen da (zenbait aztertzailek **denek** ikusten baitute). Orduñaren aipamen labur batez gain, pare bat txostenek soilik aztertzen dute sekuentzia hau.

“De hecho, **kun e k e r' (e)** sería el mejor candidato a nombre de persona, y podría estar formado por **kun(e)** y **e k e r' o k e r' e**” (Ferrer: 530). “Si se parte de las lecturas **k u n e k e b e e k i r' a t e r' e // n o kuneker' ekir' ater' e // n** (al parecer preferibles o más bien ya las únicas posibles tanto a partir del esgrafiado como del punteado, cf. la tabla 1 y el informe de Gorrochategui y Velaza [2023]), para las primeras sílabas de la secuencia pueden hallarse formas más o menos próximas en ibérico” (Igartua: 558).

Juan Inazio Hartsuaga: Tolosako antropologoa izan zen lehenetakoa idazkuna aztertzen eta proposamenak egiten sare sozialetan. Erronkari aldeko euskararen oihartzuna dakarkio Eskuak:

“Orotarikoan badator *keben*, ez ordea *kebe*. Halere, huts hori Orotarikoarena da, *kebe* aldaera ageri baita Mendigatxa bidankoztarraren idatzietan (*“Badago kebe Otsagiko animarik?”*)” (Euskeraren Jatorria 2023: 26).

dene kebe irakurtzen du, eta ‘Zorioneko dena hemen...’ interpretatzen:

“Esanahiaren aldetik, bistan da aurreko *zorioneku* hitzarekin bikote txit egokia osatzen duela *kebe (hemen)* erakusleak. Eta bien artean harrapatuta geratzen den *tene*, iberiar idazkeraren arabera, *tene* nahiz *dene* izan daitekeela jakinik, azkenaren aldeko aukerak ez du zalantzarako zirrikitu handirik uzten. *Zorioneku dene kebe*. Zaila da bertan ez ulertzea *Zorioneko dena hemen*, zaila den arren ere, *dene* hori zer den zehatz mehatz garbi ikustea: *dena? Den(a) ere?*” (EJ: 26).

Bizkaiko Euskal Filologo Taldea nahiko bat dator Hartsuagarekin puntu honetan; hauek ere erronkaria aipatzen dute eta **denak hemen** interpretatzen. Josu Lavinek ere berdintsu: **denek hemen**.

- **Ekir'ater'e/n**

Ematen du ez dagoela arazorik sekuentzia honen irakurketan. Interpretazioa beste gauza bat da. Fontestarren artean hipotesi sendorik ez: **Ferrer**-ek izen propio bat izan litekeela dio, eskaintzailearena, hain zuzen: "Permitiría plantear la posibilidad de que el par **kun e k e r̃ (e) + e k i r̃ a t e r̃** identificara al propietario del objeto, plausiblemente el propio dedicante" (530).

Igartuaren ustez, agian antroponimo edo teonimo bat izan liteke: "parece razonable pensar que la secuencia representa al menos dos vocablos, a menos que se trate de un extenso antropónimo o teónimo, en ese caso muy probablemente compuesto" (558).

Orduñak, berriz, kontuan hartzekoa dela *Andere* akitaniarra:

"En la búsqueda de cadenas conocidas, en ibérico o aquitano, que faciliten la segmentación, hay una que por su longitud debe tenerse en cuenta, y es el final **at e r̃ e - n**, perfectamente compatible con una lectura **a[n]ter'en**, que permitiría identificar el conocido nombre aquitano *Andere* en genitivo" (544).

Besteengan ez dut ezer aurkitu. Ostera, ugari dira proposamenak beste dossierrean.

Hartsuagak etxe-jabearen izena ikusten du:


"Hasieratik hasita, *ekirateren* horrek, bere genitibo posesiboarekin, *Ekirate* izeneko balizko pertsonaia baten aurrean kokatzen gaitu, eskua zintzilik zegoen etxeko jabea bide zena. [...] Nafarroako Toponimia Datu Basera jota, erro bereko *Ekiraso* toponimoa topatu dugu, Aezkoako Hiriberrin, Zaraitzuko mugan, balizko *Ekirate* bat zuritzeko nahikoa gure ustez. *Ekira* erroko beste toponimorik ez dugu aurkitu Euskal Herri osoan" (EJ: 29-30).

Bizkaiko Euskal Filologo Taldeak beste bide batetik jotzen du. Ea laburtzea lortzen dugun: **eki** = 'haiekin', **ra** = 'dira', **tere** = 'aterbe'. Eta bigarren lerroa osorik:

te n e / ke be / e ki / r' a / te r' e[n]: 'denak hemen haiekin dira aterpe(n)'. (EJ: 89).

Lavinek, berriz, 'giraten' ikusten du *ekirateren* horretan, eta esaldiaren zentzua horrelatsukoa litzateke: *Zorioneko denek hemen giraten honetan* (hurrengo lerroko **oTirtan** litzateke 'honetan').

3. lerroa



- oTir'tan · eseakar'í

Ferrer i Janek on' ir' tas'ese irakurtzen du. *Onirtas* izen propioa izan omen liteke, baina inolako segurantzirik gabe: “Así pues, **o n' i r' t a s'** podría ser un onomástico, lo cual permitiría individualizar el elemento **ese** final, que en ibérico no dispone de claros paralelos” (531). **akar'í**, berriz, agian ‘ahari’, Silgok noizbait proposatu bezala, baina arazo larria du: “Para Silgo (2018, pp. 105-106), **akari** correspondería al vasco *ahari* ‘carnero’, aunque no acabaría de encajar con las propuestas de reconstrucción del protovasco, tal como indica Igartua (2023) en su contribución a este dossier” (533).

Orduñak oTir'tanese akari segmentazioa proposatzen du, eta **T = tz** balioa, eta ondorioz **otzirtan** irakurketa.

“Aunque el texto no permite confirmar definitivamente mi propuesta (Orduña, 2018) de considerarlo una sibilante africada, tampoco hay nada en él que disminuya su valor. Al contrario, la ausencia de *s'*, como me sugiere Rodríguez Ramos (c. p. 20-4-2023), podría suponer un apoyo adicional. Las posibles alternativas que se han propuesto, como la lateral de Gorrochategui y Velaza (2023) o la nasal de Ferrer i Jané (2023), ambas en este mismo dossier, no ofrecen propuestas de identificación para las dos cecas vasconas en que aparece el signo” (542).

Hona hemen T-dun bi zeka-izen baskoi, ohiko irakurketaz eta Orduñarenaz. Balizko *Utzama ate* Nafarroako Ultzamarekin lotzen du Orduñak, eta *Otstikes*, berriz, ibar bereko Ostiz herriarekin, nahiz eta ez duen baztertzen Astiz ere (Orduña 2007, 141).



Otzir-en *Ortzi*-ren metatesia egon litekeela hipotizatzen du, eta OTZIRTANES jainko-izenaz ari litekeela.

“La segmentación más probable es **otzir'-tanes-e**, con el conocido sufijo de dativo vascónic-aquitano que aparece con nombres de divinidad. Por ello en principio sería probable que se trate de un teónimo, con la forma de compuesto bimembre que no es rara en teónimos aquitanos. El segundo elemento **tanes** recuerda al ibérico **tanes'** (546).

Hasierako abstract-ean laburtzen du bere hipotesia: “Se trataría de un texto de carácter votivo redactado en dos momentos, probablemente una dedicación por parte de *Sorion* a una divinidad *Otzirtanes*, escrita en lengua vascónica” (Orduña 540).

Ariztimuño-Zuloagak kontaezin ahala arazo aurkitzen diote Orduñaren proposamenari:

“Orduña ha mencionado la posibilidad de que dicha forma se relacione con el eusk. *ortzi* ‘cielo, Dios (?)’. La explicación nos resulta difícil. [...]. En el plano fonético, una solución a través de


una metátesis no está exenta de problemas: los ejemplos de metátesis de la vibrante en coda final a coda de la primera sílaba son escasos y difícilmente extrapolables al s. I a. C. [...] Respecto al signo <T> y a *Ortzi*, cabe recordar que la realización africada de la sibilante tras sonante es relativamente moderna en vasco. [...] Respecto a forma *ese*, que inicia el segundo segmento de la tercera línea, se ha propuesto el **eze* ‘no’ protovasco” (574).

Hartsuagak otir orrits ‘bankete’ izan litekeela dio, eta **-tan** lokatiboa, non: *orritse(t)an*, alegia.

“*Otsir* ez da ageri Orotarikoan. Bai ordea metatesi bat bitarteko bere oinordeko bide dugun *orrits*. Berdin-berdina izan gabe, *lexar* eta *errexala*-rena bide dugu aipatu metatesiaren zurigarri egokia (mila esker Ander Ros adiskideari). *Orritsa* banketea da, Oihenartek argitzen digunez hitzaren agerpen jator bakarrean (*Orritsetan du erhoak ona gastatzen, eta zuhurak berea goitiatzen*)” (32).

ese akarri zatitzen du hurrengo sekuentzia, eta *ez akartu* (haserretu) esanahia proposatzen. Eta idazkun osoa, “Orotarikoan ageri diren hitzez: *Zorhi oneko denekeben. Ekirateren orritstan ez akartu, eragon*”. *Eragon* ‘dibertitu’.

Bizkaiko Euskal Filologo Taldea ez dator bat ohiko irakurketarekin, uste du banaketatzat jotako marra bertikal puntuatua zeinu iberiar bat dela: **ba**, eta honek asko aldatzen duela interpretazioa.



ba > pa ‘musu’ proposatzen dute, eta **eseakar’i** ez ahakarri, ‘ez haserretu’. Horrela irakurtzen dute 3. lerroa: **oTir’tanbaeseakar’i**, eta horrela interpretatzen: **hots irri eta ma ez ahakarri**. Beste hitz batzuekin: “*hots irri eta musu ez liskar*. Eta, azkenik, bertsio irekiagoa: *ahots, irri eta musu, liskarrik gabe*” (91).


Lavinek ez du misterio handirik ikusten lehen partean: **oTir’tan** = ‘honetan’. Eta horrela interpretatzen du idazkun osoa: “Zorioneko denek hemen giraten onetan etsea ekarri eraukon”. Esanahia: “Zorionekoak etxe honetara ekarriak izan garen denok”. Gaztelaniaz: “Seamos felices las personas que hemos sido traídas a esta casa” (24).

- **ese akar’i** ala **esea kar’i**?

Lehen begiratura, pentsa zitekeen *etxea* eta *ekarri* hitzak filologoek aztergai izango zirela **eseakar’i** sekuentzia begiztatzean, nahiz eta gero, analisi sakonen ondoren, guztiz baztertu kidetasuna. “Nolako artikulua usaina” zioztan filologo on batek Eskuaren berri jakin zuenean. Eta bai, artikulua usain handia du *esea*-k; eta ondoren duen *karri*-z ere ez litzateke harrigarria izango norbaitek *ekarri*-ren protoformatzat hartuko balu. Ez litzateke harrigarria izango **etxe** edo **etze**-ren soinu afrikatua /s/ soilez adierazia egotea; batetik, sistema iberiarrean ez zegoelako soinu afrikatuak adierazteko zeinurik, eta bestetik, erromatarren garaiko euskal epigrafian, gehienetan /ss/, /sx/ edo /ts/ (*Herauscorritse, Selatse...*) bidez irudikatu arren, agertzen direlako *Errensae* (*Errentza?*) Nafarroan, *Onse, Onso* (*hontz*-etikoak, Eduardo Aznarren iritziz) edo *Harsori, Harbelex* edo *Anderexo* Akitanian.


Fontesko txostengileak, espero bezala, ez dute aintzat ere hartu **esea = etxea** posibilitatea. Gauza ezaguna, frogatua, jakina eta eztabaida ezina baita ez zegoela artikulurik antzinatean. Sekuentzia honetaz arduratu diren apurrek **ese = eze** negazioa⁹ + **akarri** ikusi dute, iberieraz pare bat aldiz agertzen ei den hitza (*akari* forman, /r/ bigunaz). Esanahi ezezagunekoa.

4. *lerroa*



- **e r' a u k o n**

Printzipioz ez du irakurketa arazorik, baina zalantzak daude **r'** horren balioaz: dardarkari biguna /r/, ala gogorra /rr/? Bada /rh/ ahoskera proposatu duenik ere, egun Iparraldean bizirik dagoena. Edo eta /dr/, Bizkaiko Euskal Filologo Taldeak defendatu duena. Hitz honetan gogorra litzateke berez, baina, goian adierazi dugun bezala, ez dago garbi zenbaterainoko gogorra zen, *gorri/gori* edo *berri/beri* bezalako alternantziak usu dokumentatzen baitira antzinatean.¹⁰



Gorrochategui-Velazak aditza dela defendatzen jarraitzen dute, aurkezpen egunean bezala:

“Pensamos que el elemento verbal de la frase se encuentra en el último vocablo de la inscripción (**e r' a u k o n**), que admite sorprendentemente una equiparación formal buena con las formas vascas del verbo causativo **eradun* ‘hacer tener’ > ‘dar’, que encajaría bien en la semántica de una dedicación” (501).

Testua iberieratik interpretatzen duen **Ferrer i Janek** ez die arrazoia kendu nahi, eta azalpen korapilatsuetan endredatzen da:

“Así pues, si ***e r' o k o n**, la supuesta versión ibérica del vascónico **e r' a u k o n**, apareciera en un texto ibérico, se segmentaría como **e r' o k + on**, con la raíz del paradigma y un elemento -**on**. Una primera posibilidad sería que fuera una forma verbal del paradigma de -**e r' o k**- con una marca modal -on aun no documentada”¹¹ (534).

Orduña:

“Parece claro, como proponen Gorrochategui y Velaza (2023) en este dossier, que debe relacionarse con el auxiliar tripersonal vasco en la forma causativa propia de dialectos nororientales, que como verbo simple significa ‘dar’, literalmente ‘hacer tener’. [...] Por último,

⁹ Gorrochategui bera izan zen Eskuaren aurkezpen egunean interpretazio hori proposatu zuena.

¹⁰ Toponimian: *Iliberi/Iliberri, Calagurris/Calagorina, Gracurris/Gracuris, Ilumberritani/Ilumberitani*.

Akitaniako epigrafian: *Baigorixo/Baicorrixo, Ilurgorri*. Iruña-Veleian : *gori, lura, aros, araina*.

¹¹ Azpimarra gurea da.

la falta del prefijo (véase *zeraukan* en Leizarraga, por ejemplo), habitual en vasco salvo en el dialecto occidental, es una coincidencia interesante con el **ekien** de Andelo” (546).

EHUtarrek, ostera, alde guztietan ikusten dituzte arazoak:

Igartua:

“En relación con el último elemento de la inscripción (**e r´ a u k o n**), las formas trivalentes de los verbos vascos (como son los auxiliares *derauko* o *zeraukan*) podrían ser desarrollos relativamente recientes en la lengua vasca” (556).

Ariztimuño-Zuloaga dira arazo gehien aurkitzen diotenak Gorrochateguien eta Orduñaren interpretazioari. Bi orrialde oso era guztietako oztopoak azaltzen: “Sin embargo, dicha interpretación está plagada de problemas que abarcan aspectos gráficos, fonéticos, morfológicos y sintácticos” (575-576). Xehetasunak orrialde horietan. **Manterola-Mounolek** ere antzeko gauzak esaten dituzte, ingelesez (589-590). **Martinez Areta** ere iritzi berekoa da. Arazoak aletu ondoren, zera ondorioztatzen du:

“Por último, además de todos los problemas mencionados, que afectan a diversos segmentos de **e.r´.a.u.ko.n** de manera individual, es extremadamente improbable que (un antecesor de) la forma en sí hubiera existido en el siglo I a.C.” (629).

Bestelako txostenetan gehienek ikusten dute aditza, nahiz eta ez aditz bera.

Hartsuaga:

“Bigarren aukera, *eragon* aditza da. [...] *entretenu* edo *distrainu* esan nahi baitu, hots, zeozer egiten denbora pasa, batzuetan lanean, baina gehienetan aisialdiarekin lotuta. Hau guztiagatik, *eragon* aditza hobetsiko dugu inskripzioko *eraukon* argitzeko” (31).

Bizkaiko Euskal Filologo Taldea *eraduki*-tik abiatzen da. Haren esanahia, EHOren arabera,

“Tener, mantener. [...] Ezinezkoa da /rr/ izatea, ez baita dokumentatzen **errauki* aditzik. Baina euskara molde haren fonetismoen arabera, oso probablea da /edrauk/ izatea, soinuen metatesi bat gertatuta. [...] Beraz, esango bagenu bezala: *Eukik zorion - Eraukik on*” (83).

Hots, despedidako formula bat izan litekeela *eraukon*, hasierako *zorion ekun* agurra borobilduko lukeena.

Lavinek, berriz, aditz laguntzailea ikusten du, batuko *zion*. Eta sekuentzia osoa: *etsea ekarri eraukon*. Eta ondorengo interpretazioa ematen dio idazkun osoari: “Zorionekoak etxe honetara ekarriak izan garen denok”; *ad sensum* interpretatua, hitzez hitzezkoari gehiegi lotu gabea.

7.- Ez da lehen aldia irakurketan tranpak egiten direna. IVILIA eta IBARRAren kasuak

Gai hauetan korapilatu aurretik, pentsatzen nuen borondate onez jokatu ohi duela beti ikerlariak, norbera bat etorri ala ez haren interpretazioekin. Baina Iruña-Veleia auzian bizitako esperientzia garrantzak itzulikatu egin du nire uste onbera, eta orain iruditzen zait batzuek tranpak egiten dituztela era lotsagarrian, beren komenentzien arabera.

Gogorra egiten zait *tranpa* hitza erabiltzea, baina ez zait hoberik bururatzen zenbaiten jokabidea ikusita. Esan dugu 2022an Gorrochateguik eta Velazak Irulegiko Eskuaz eskaini zuten irakurketa iruditzen zaidala zuzena, eta 2023an filologo berberak emandakoa okerra. Tranpatia. Eta goian azaldu dugu zergatik. Baina ez da horrelakoak gertatzen diren lehen aldia.

- **Ivilia 'Tutela' da, eta Ibarra 'Reburus' ziurrenik. Ivilia eta Ibarra kondenatuak -a artikulua daramatelako**



Iruña-Veleiako ostraka bat

Gauza jakina da Batzordeko filologoek Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak kondenatzeko erabili zuten “argudio izarra” -a artikulua izan zela: “La posibilidad de que algo así se diera en vascuence en la antigüedad es nula” (Lakarra 2009: 13). Sententziak “efektu erretroaktiboak” izan ditu, eta ondorioz Foruko *Ivilia* eta Extremadurako *Ibarra* ere erdaldun bihurtu baitira.

IVILIA

1906. Urte horretan “aurkitu” zen Foruko Ara, herri horretako San Martin elizan. Urbedeinkatu-ontzi gisa erabiltzen zen elizpean. Lehenagotik ere ezaguna zen baina ez zitzaion garrantzirik ematen, modernoagoa zelakoan. Egun, Bizkaiko Arkeologia Museoan dago.



Hispania Epigraphica datu-baseko sarrera

	Dedicación a Ivilia No. de registro. 6340 Altar votivo - Cultural	Encontrado en Forua, Vizcaya, País Vasco, España	Almacenado en - En el interior de una ermita de Forua.
Inscripción Iviliae sacrum / M(arcus) Caecilius Mon/tanus pro salu/te Fusci fili(i) / sui posuit / QVNO feci(t)	Descripción Ara realizada en mármol rojo de Ereño, en un bloque octogonal que posee diversas molduras de corte clásico y un focus en su cabecera. La (...) Biblio F. FERNÁNDEZ PALACIOS, "Comentarios de epigrafía vizcaína romana y la municipalización en el territorio de la actual Euskadi", Gerión 22, 2004, (...)		

Betidanik IVILIA irakurri izan da (*Iviliae* datiboan). Horrela ageri da datu-baseetan ere.

1908. Aita Fidel Fita, garaiko espezialista nagusia: “Probablemente el monumento más antiguo conocido en España del idioma euskaro” (1908: 141).

1981. Zera idatzi zuen garai hartan Bizkaian lan egiten zuen A. Rodriguez Colmenero epigrafista galziarrak:

“Refiriéndose al nombre de la divinidad, afirma Blázquez que, posiblemente, deriva del vocablo indígena *ibi/li*, que en euskera significa moverse o bullir. [...]. En tal contexto pudiera tratarse efectivamente de una divinidad relacionada con el movimiento, ya que en euskera existe el término *lbilli-a*, que significa lo de andar, el movimiento, siendo lógico, además, pensar que la enfermedad que padecía Fusco, hijo de Marco Cecilio Montano, estaba relacionada con algún tipo de parálisis” (R. Colmenero 1981: 152).

2004. Zera dio EHUKo irakasle izandako F. Fernandez Palaciosek:

“A este respecto coincidí con J. Velaza en el *Coloquio* y [...] Examinamos una buena foto y diapositiva de la pieza y, a falta de realizar la pertinente autopsia, estimamos por buena la lectura *Tutelae*, ya que la palabra parece presentar un desconchado en algunas letras en su parte superior. Sin embargo, me informa M. Unzueta que la autopsia de la pieza no ofrece dudas en la lectura de *IVILIAE*” (F. Palacios 2004: 485).

Baina badirudi Gorrochateguik ez zuela izan F. Palaciosen artikularen eta piezari eginiko autopsiaren berririk:

2008. “Bizkaian eta Gipuzkoan ez da aurkikuntza epigrafiko berririk izan, baina interesgarria da esatea Foruako izkizioan irakurtzen zen *Iviliae* jainkosa izena, nik neuk ere erromatarren aurreko izena kontsideratzen nuena, orain J. Velazaren bista fina eta jakituriari esker *Tutelae* irakurri behar dela. Honekin batera oso arraroa egiten zitzaigun euskal kutsurik gabeko izena ezabatu behar dugu lekuko artetik” (Gorrochategui: 2008: 372).

Jakituriarena ez dugu zalantzan jartzen, baina bista fina? Eta honaino helduta, galdera irakurleari: gogoratzen zer gertatu zen 2008an arkeologia munduan, Araban?

2013. Interpretazio “alternatiboa” aurkitzen dio F. Palaciosek:

“Aparte de las posibilidades ofrecidas en mi trabajo del año 2010, ahora cabe añadir la explicación que me parece más correcta, realizada a través del celta: **iuos* o **iuos* cf. Francés moderno *if* ‘tejo’, y derivación en *-ol-yo-*, cf. el NP *Mogolius* en Lusitania”. (2013: 559).

2018. *Euskararen Historia* liburu mardularen barruan “Euskara Antzinatean” izenburuko artikulua argitaratu zuen Gorrochateguik. Ziur asko euskal epigrafiaz egin den laburpen didaktikoena. Ez da Foruko Aldarea aipatzen, eta ondorioz ezta *Ivilia* ere. Ondoren aztertuko dugun *Ibarra* ere ez.

2022. Luis Mari Zalduak *Euskal Herriko Antzinaroko jainko eta jainkosen izenak* liburua argitaratu zuen. Bederatzi jainko-jainkosa aztertzen ditu, baina haien artean ez dago *Ivilia*. Dena dela, aipatzen du:

“Bizkaiko Foruan inskripzio entzutetsua dugu, orain arte *Ivilia* andre jainkoaren laudoriozkotzat jotzen zena. [...] Egun, ordea, —izen zaharragoa ikusi ordez— *Tutela* irakurketa hobesten da eta, ondorioz, erromatar jatorriko izendapentzat sailkatzen” (Gorrotxategi 2008, 372 or).

Ikusten dugunez, *Ivilia* jokuz kanpo utzi dute. 2023an Bizkaiko Arkeologia Museora joan ginen eta hainbat argazki atera genion arari.



Bakoitzak nahi duen interpretazioa egin dezake, baina irakurketan ez dago zalantzarik, hor IVILIA ipintzen du, eta TUTELA irakurtzen duela esaten duenak bista-arazo larria du, edo, esaerak dioen bezala, “Bista ona eta ikusi ezin”.

IBARRA (Caceresko Plasenzuelan agertua)

1972. Zera zioen Lourdes Albertos epigrafista leondarrak aurkezpen lanean:

“Dedicado a los dioses Manes, a L(ucius) Iulius [hijo de] Lascius Ibarra, de 33 años, está sepultado en este lugar, que la tierra te sea leve. Su padre se encargó de erigir [este monumento] a su hijo”. [...]. “Nuestro individuo aparece plenamente romanizado: Lucius Iulius Ibarra, hijo de Lascius, ciudadano romano sin duda, si atendemos que lleva los tria nomina, y con absoluta seguridad por su cognomen indígena, de ascendencia vascona o al menos de una región de habla vasca” (1972: 213:218).



Albertosen irakurketa eta interpretazioa ez da kuestionatu oraintsu arte, Iruña-Veleiako grafitoetan *ura, sua* eta abar agertu ziren arte, hain zuzen. Handik aurrera

“ezinezko” bihurtu da, eta esplikazio estafalararioak bilatu zaizkio. Ikusi zer zioen F. Fernandez Palacios epigrafistak Iruña-Veleia lehertu eta denbora gutxira:

2010. “Joaquín Gorrochategui [...] ha rechazado algunos testimonios que en su día se consideraron muy claros y entre ellos está el *IBARRA* [...] ya que presentaría una “gramaticalización” del artículo *-a* vascuence [...] que no se dio sino mucho después en vasco (en época altomedieval)” (2010: 364).

Hona hemen argi eta garbi adierazita. Gorrochateguiaren argudioek konbentzitu egin zuten, nonbait, F. Palacios, eta beste etimologia bat bilatzen saiatzen da Ibarrentzat. Goian ikusi dugu berdintsu jokatu duela *Ivilia*-rekin.

“Por lo que en realidad muy probablemente el *cognomen* contenga un suf. *-arro/-a* (cf. el NE astur de los *Susarri*) o *-rro/-a* (étnicos *Seurri* y *Gigurri*, quizá el característico nombre hispano *Reburus*, etc.)” (F. Palacios 2010: 364).

Bejondeiola. *Ibarra* ez da *Ibarra*. Agian *Susarri* asturiarra, baina ziurrenik *Reburus* hispaniarra. Txiste txar bat egiteko bidea ematen du, baina isiltzea hobea.

8.- Martinez Areta eta Euskalduntze Berantiarra

Garbi dago askok erabili duela IE urak bere errotara eramateko. Eta Arga Iruñatik pasatzen dela probesturik, horixe egin du irakasle honek ere. EHUtarren txostenen artean Martinez Aretarena da agian landuena. Gauza jakina da bera dela euskalduntze berantiarren bertsio modernoaren defendatzailearik sutuena.¹² Akitaniatik etorritako migrazio batek euskaldundu omen zuen Pirinio hegoaldea erromatarkuntzaren amaieran edo Erdi Aroaren hasieran. Aurrez ere egingo ei zen baskonieraren familiako hizkuntzaren bat hegoaldean, baina galdu egin zen erromatarkuntzarekin, Hispaniako hizkuntza guztiak bezala. Pirinio hegoalde osoa latinizatu zen, Mz. Aretaren iritziz.

“Al menos en la franja septentrional del territorio vascón, no parece que sucediera nada extraordinario, sino que ocurrió lo normal en *Hispania* y buena parte del Imperio romano occidental, esto es que la municipalización de la *civitas pompelonensis* comportó la integración de sus élites indígenas y la eventual latinización del territorio. ¿Cómo explicar, entonces, la emergencia del vigoroso euskera histórico en la Alta Edad Media en Navarra (y otras regiones vecinas)? Obviamente, habría que postular un movimiento poblacional de aquitanos que, en algún momento del Bajo Imperio o de la Tardoantigüedad, euskerizase la Cuenca de Pamplona” (634-635).

9.- Ondorioak: bakoitzak bereak

Aurkezpenean esan dugu gaiaren *status quaestionis* bezalako bat egin nahi genuela, iritzi ezberdinen laburpena-edo, baso zarratu honetara sartzen denari orientazio apur bat eskaintzeko. Ikusitakoak ikusita, beldur naiz aurkakoa lortu ez ote dugun, basoa gero eta ilunagoa ez ote dagoen, nahasmendua areagotu ez ote dugun. Hala ere, ibilbide luze honen ondoren, nola-halako ondorio batzuk ateratzen saiatuko gara.

Eskuaren sinbologia. Orain moztutako eskua da, gerra-trofeoa. Gorrochategui eta Velazak oso-osorik onartu dute Beltránen tesia, eta beste txostengile guztiek ere bai, Ferrer i Jané-ren salbuespenarekin.

¹² Tesi hori defendatzen du, Abaitua eta Ramosekin batera, 2022ko artikuluan Ik. biblio.

Eskuaren hizkuntza. Gorrochategui eta Velazak baskonikoa dela esaten jarraitzen dute. Orduña eta Ferrer i Jané ados agertzen dira puntu honetan, iberierako elementuak ere aurkitzen dituzten arren. Orduña da agian gardenena:

“En cuanto a la lengua, al menos si prescindimos de las partes más confusas del texto, el texto muestra una morfosintaxis en gran parte compatible con el vasco histórico: (ergativo **-ek(e)**, absoluto sin marca, tal vez genitivo **-en**) o con sus escasos testimonios antiguos (dativo **-e**). El probable verbo final **e r' a u k o n** muestra al menos el infijo causativo del vasco histórico y la ausencia de prefijo típica del dialecto occidental, pero tal vez también ya del vascónico, a juzgar por la inscripción de Andelo” (548).

EHUko irakasleek, berriz, arazoak aurkitzen dizkiote idazkunean agertzen diren hitz guztiei baskonikotzat jotzeko. Ez dira Lakarraren¹³ berreraiketa arauen iragazitik pasatzen. Beraz, ez dago aitzineuskaraz. Ez dakigu zein hizkuntzatan dagoen. Norbaitek iradoki du galdutako hizkuntzaren bat ez ote den. Bestalde, zaila egiten zaigu ulertzea zein logikari jarraitzen dion Lakarrak hurrengo esaten duenean:

“... tanto *zorioneko* como *zorion* serían imposibles hace 2000, 1500 o 1000 años en función de la evolución posterior de otras voces –estas sí antiguas– de estructura similar (con *-on* lexicalizada como *Lekuine*, *eskuin* o *aitona*) documentadas en tales épocas: esperaríamos respectivamente ****zorioiko** y ****zorioi**” (600).

Gison, agertzen da Akitanian, eta gaur ere *gizon* da, ez **gizoi*; 759an *amunna* Beloradon, eta gaur egun ere *amona*, ez **amoi*; eta *zorion*-ek ****zorioi** eman behar zuen derrigor? *Eskuin* adibidea jartzen du, baina bizkaierazko *eskuma* ahazten zaio, ‘esku-ona’ jatorriz, ziurrenik. Eta ez dakigu zergatik ipini duen *aitona* adibideen artean, ez baitu **aitoi* sekula eman.

Goian aipatu dugun Martinez Aretak horrela titulatu du bere txostena: “¿Es la lengua de la mano de Irulegi la antecesora directa del euskera histórico?” Haren erantzuna EZ borobila da. Hori bai, euskara edo baskoniko motaren bat egingo omen zen hegoaldean erromatarkuntzaren hasieran (horrela esplikatua geratzen dira Soriako edo Nafarroako izenak, *Sesenco*, *Umesahar* etab.), baina aitzineuskara hori galdu egin zen eta Pirinio hegoalde guztia latinizatu. Hau dela eta, ez du baztertzeko idazkunaren hizkuntzan aurretiko baskonikoaren edo dena delakoaren elementuak agertzea. Hau guztia primeran egokitzen zaio, jakina, bere euskalduntze berantiarraren teoriari.

¹³ Esanikoa ilustratzeko, merezi du Lakarraren oin-oharra osorik ekartzea: “La aportación de Manterola y Mounole (2023) incluida en este volumen completa perfectamente la presente contribución, mostrando que tanto *zorioneko* como *zorion* serían imposibles hace 2000, 1500 o 1000 años en función de la evolución posterior de otras voces –estas sí antiguas– de estructura similar (con *-on* lexicalizada como *Lekuine*, *eskuin* o *aitona*) documentadas en tales épocas: esperaríamos respectivamente ****zorioiko** y ****zorioi**); v. también el importante Manterola (en preparación). Conuerdo, asimismo, con los fundamentos y consideraciones de Zuloaga y Ariztimuño (2023) sobre la metodología del análisis del texto de la mano de Irulegi incluidos en su aportación a este volumen y también con lo que señalan sobre formas como *ese* o *eraukon* y sus conclusiones generales.

“No puedo estar más de acuerdo con Igartua (2023) cuando dice que «la pieza integra una serie de elementos de una cierta proximidad superficial con euskera y/o ibérico, pero contiene a la vez secuencias aparentemente ajenas a cualquier patrón conocido, lo que alimenta el espacio siempre fecundo de la libre especulación. [Y aún más] En esta contribución se procura separar el trigo de lo verosímil de la paja de las ocurrencias manifiestamente prescindibles». Por todo ello procuramos dar la palabra a lo conocido o al menos a lo más cognoscible, i.e., a la historia de la lengua vasca” (600 o., 3. oharra).

Txosten “alternatiboetan” euskara edo euskera hitza erabiltzen da soilik Eskuko hizkuntzaz jarduterakoan.

Testuaren interpretazioa. Aurrekoaren jakitun, esan beharrik ez EHUtarr gehienek ez dutela ahaleginik egin testua bere osotasunean interpretatzen. Hitz bakar bat ere ulertzen ez bada, denak batera gutxiago. Orduñak ere, nahiz eta baskonikoz dagoela defendatu, onomastikan eta aditzean soilik aurkitu uste ditu kidesunak euskara historikoarekin.

“En cuanto al léxico, a excepción del verbo, solo en la onomástica (**sorion, a[n]ter'en**) se pueden identificar elementos claramente vascónico-aquitano, conservados en vasco histórico. **a k a r' i** y tal vez **tanés** pueden relacionarse con el ibérico, con pequeñas diferencias ortográficas. Tanto el posible ergativo **-ek(e)** como **e r' a u k o n** son más fáciles de relacionar con el vasco que con el ibérico, aunque **e r' a u k o n** abre interesantes posibilidades para la comparación entre ambas lenguas” (548).

Goian esan dugunez, hiru aukeratu ditugu Euskeraren Jatorriaren dossierreko txostenen artetik. Denetan daude interpretazio proposamenak, nahiko ezberdinak egia esan, kointzidentziak ere badiren arren. Jatorrizko formatuan ekarri ditugu hona (23-24). Bizkaiko Euskal Filologo Taldearena Joseba Butroeren atalak.eus webgunean dago garatua, eta handik jaso dugu azken bertsioa.

Juan Inazio Hartsuaga	<p><i>(Orotarikoan agertzen diren hitzez)</i></p> <p>Zorhi oneko dene keben. Ekirateren orritsetan ez akartu, eragon.</p> <p><i>(Erdialdeko euskara estandarrean)</i></p> <p>Ongi heldua dena ere hemen. Ekirateren adiskidetasun banketeetan, ez haserretu, ondo pasa</p>	<p><i>(En palabras que aparecen en el Diccionario General Vasco)</i></p> <p>Zorhi oneko dene keben. Ekirateren orritsetan ez akartu, eragon.</p> <p><i>(En euskera estándar central)</i></p> <p>Aquí todos-as son bienvenidos-as. En los banquetes de amistad de Ekirate, no te enfades, diviértete</p>
Josu Lavin	<p>Zorioneko denek hemen giraten onetan etsea ekarri eraukon</p> <p>Zorionekoak etxe honetara ekarriak izan garen denok.</p>	<p>Seamos felices las personas que hemos sido traídas a esta casa</p>
Bizkaiko Euskal Filologo Taldea	<p>Zori hon ekhu(n) (ukan). Denak hemen hekin (haiekin, elkarrekin) dira aterpen (babesean). Hots irri eta ma (musu) ez ahakarri(k) (liskarrik). Edrauk on (Eukik on).</p>	<p>Sé feliz (ukan) / Todos aquí tienen refugio. Bullicio, risas y besos. No enfadarse. Pasarle bien.</p>

Bizkaiko Euskal Filologo Taldea (92)



Edozein modutan, Eduardo Aznar ikerle nafarraren hitz zuhur batzuekin amaitu nahi nuke ene ekarpen xume hau:

“Irulegiko eskuko testuaren interpretazio fidagarriak urte batzuk beharko ditu, eta ez dago batere argi egun batean guzti-guztia zehatz-mehatz konprenituko dugun ala ez (behintzat, zaila izanen da ikerlarien arteko adostasun osoa erdiestea). Testuaren edukia nahiko konplexua eta arraroa da eta orain arte euskara zaharraren jakintza-maila orokorrak nahiko mugatua dirudi: une honetan pertsona bat ere ez dago munduan Irulegiko testua zuzenki konprenitzeko gai. Baldin norbaitek badiosku Irulegiko testua zalantzarik gabe deszifratu duela, arratsalde batean bakarrik, ziurrenez oker egonen da eta inozogia izaten ariko da, ilusio hutsak eramanik” (Aznar Martinez 2023: 33).

BIBLIOGRAFIA

ABAITUA ODRIOZOLA, Joseba; MARTÍNEZ ARETA, Mikel; RAMOS REMEDIOS, Emiliana. 2022. "Del euskera en la tardoantigüedad. Expansión a occidente y dialectalización". *Palaeohispanica* 22, 47-84.

AIESTARAN, Mattin et al. 2022. *Irulegi. Irulegiko eskua, K.a. I. mendeko lekukotasun epigrafiko bat Aranguren Ibarrean*. Aranzadi, Nafarroako Gobernua, Aranguren Ibarreko Udala.

- 2024. "A Vasconic inscription on a bronze hand: writing and rituality in the Iron Age Irulegi settlement in the Ebro Valley". *Antiquity* 0: 1-19. Cambridge University Press.

ASTIZ, Iñigo. 2024. "Euskarak irrist egiten dio Irulegiko Eskuari". Berria 2024-01-07.

AZNAR MARTÍNEZ, Eduardo. 2023. "Irulegiko Eskuaren mitoak eta egiak". *Ttiki-ttaka* 32: 31-35. IKA Euskaltegia.

BELTRÁN LLORIS, Francisco. 2023. "Una mano cortada". *Fontes* 136: 503-514.

BIZKAIKO EUSKAL FILOLOGO TALDEA (BEFT). "Irulegiko Eskua". Euskeraren Jatorriaren dosierra: 80-92. http://euskerarenjatorria.eus/?page_id=41514

BUTROE, Joseba. *Irulegiko Eskua. Interpretazioa. Análisis* (atalak.eus webgunea). <https://www.atalak.eus/eskua/index.html>

EUSKERAREN JATORRIA. 2023. "Irulegi" (dosierra). <http://euskerarenjatorria.eus/?pageid=41514>

FERNÁNDEZ PALACIOS, Fernando. 2004. "Comentarios de epigrafía vizcaína romana y la municipalización en el territorio de la actual Euskadi". *Gerión* 22-2, 479-492.

- 2013. "Notas acerca de la extensión, intensidad y cronología del vascuence peninsular antiguo". *Palaeohispanica* XI, 553-565.

FERRER I JANÉ, Joan. 2023. "La inscripción vascona de la mano de Irulegi desde la perspectiva ibérica". *Fontes* 136: 515-538.

FITA, Fidel. 1906. "Nuevas inscripciones de Fórua, Rasines, Quintanilla, Somuño, Uclés, Cartagena y Zahara". *Boletín de la Real Academia de la Historia* 49, 421-435.

GORROCHATEGUI, Joaquín. 2008. "Antzinateko euskararen nondik norakoak". Euskalgintza XXI. mendeari buruz, XV. biltzarra. Euskaltzaindia. *Iker* 19, 361-378.

GORROCHATEGUI, Joaquín, VELAZA, Javier. 2023. "La mano de Irulegi: edición y comentarios epigráficos y lingüísticos". *Fontes* 136: 491-502.

HARTSUAGA, Juan Inazio. 2023. "Irulegiko Eskua Euskeraren Jatorriaren dosierra: 25-36. http://euskerarenjatorria.eus/?page_id=41514

IGARTUA, Iván. 2023. "Un enigma envuelto en un misterio: la interpretación lingüística de la mano de Irulegi". *Fontes* 136: 551-564.

LAKARRA ANDRIÑUA, Joseba Andoni. 2009. "Informe sobre inscripciones eusquéricas antiguas de Veleia". Arabako Foru Aldundiaren webgunea.

- 2023. "Zorioneko y zorion: lo que nos dice de ellos la historia de la lengua vasca". *Fontes* 136: 597-616.

- LAKARRA, Joseba A., MANTEROLA, Julen, SEGUROLA, Iñaki. 2019. *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Euskaltzaindia.
- LAVIN, Josu. "Irulegiko Eskua". *Euskeraren Jatorriaren dosierra*: 24.
http://euskerarenjatorria.eus/?page_id=41514
- MANTEROLA, Julen, MOUNOLE, Céline. 2023. "An assessment of the Basque Interpretation Hypothesis on the inscription contained in the hand of Irulegi". *Fontes* 136: 583-596.
- MARTINEZ ARETA, Mikel. 2023. "¿Es la lengua de la mano de Irulegi la antecesora directa del euskera histórico? *Fontes* 136: 617-638.
- ORDUÑA AZNAR, Eduardo. 2023. "Observaciones sobre la inscripción de la mano de bronce de Irulegi". *Fontes* 136: 539-549.
- 2018. "El signo T de las leyendas monetales vasconas uTanbaate y oTtikes". *Palaeohispanica* 18: 137-49.
 - 2023. "La inscripción musiva de Andelo: nuevos plantemientos". *Paleohispánica* 23: 63-74.
- RODRÍGUEZ COLMENERO, Antonio, CARREÑO, María Covadonga. 1981. "Epigrafía vizcaina. Revisión, nuevas aportaciones e interpretación histórica". *Kobie* 11, 81-164.
- SANTAZILIA, Ekaitz, GORROCHATEGUI, Joaquín. 2023. "La mano de Irulegi: reflexiones desde la paleohispanística y la vasculogía (dosier)". *Fontes* 136: 485-490.
- SILGO GAUCHE, Luis. 2024. "Una opinión más sobre la mano de Irulegi".
<https://blogak.goiena.eus/elexpuru/2024/02/15/>
- TORRES TORRES, Elena. 2007. "El desciframiento de la lengua cuneiforme". *Isimu. Revista sobre Oriente Próximo y Egipto en la Antigüedad* 10: 77-97.
- ZALDUA, Luis Mari 2022. *Euskal Herriko Antzinaroko jainko eta jainkosen izenak*. Euskaltzaindia.
- ZULOAGA, Eneko, ARIZTIMUÑO, Borja. 2023. "Sobre la lengua de la mano de Irulegi: apuntes y conjeturas. *Fontes* 136: 565-582.

Eranskina: Iruña-Veleiaren itzal luzea

2009ko martxoaren 19a, San Jose Eguna, Bartzelonako Euskal Etxean gaude publikoaren artean Maritxu bikotekidea, alaba Irati eta hirurok. Hitzaldia Iruña-Veleiaz. Gaia bizi-bizi dago, denbora gutxi igaro da aditu batzorde batek grafitoak faltsutzat jo dituenetik. Txostenak agertu berri dira Interneten. Hizlariak, Joaquin Gorrochategui hizkuntzalaria “faltsisten” aldetik eta Koenraad Van den Driessche geokimikari belgikarra “benetariaren”etik. Halako batean, nire harridurarako, hiru lagun hurbildu dira hizlariaren mahaira. Hirugarrena Javier Velaza da, Bartzelonako unibertsitatean lan egiten duen epigrafista nafarra, Gorrochateguiaren adiskidea. Ederto! Bi baten kontra, eta aurrez abisatu gabe. “Zer entzerrona mota da hau?”, dinotsat Maritxuri ernegatuta, aulkian kabitu ezinik.

Gauza lehenagotik dator. Otsailaren bukaera aldera Euskal Etxeko arduradunak deitu zidan galdetuz ea prest nengoen hitzaldi bat emateko Gorrochateguiarekin batera. Bidaia, hotela, diru-saria, dena zehaztu zidan, baldintzak ezin hobeak ziren. Nik baietz. Baina hitzaldirako astebete falta zela, arduradun berak deitu zidan esanez ezetz, hobeto pentsatu zutela eta hitzaldi-eztabaida Gorrochategui eta Van den Driessche-ren artekoa izango zela. Oraindik ez dakit nondik etorri zen nirekiko betoa. Penatuta geratu nintzen, dena prest bainuen ordurako. Hala ere hitzaldira joatea erabaki genuen, bide batez hirian bizi zen alaba Irati bisitatuko genuen. Eta hitzaldira etorri eta hau! Hitzaldia ernegagarria izan zen. Nahikoa lan izan zuen Koen gizajoak bere gaztelera txarrean egiaren jabe ziren bi filologoen baieztapen borobilei aurre egiten. Uko egin behar izan zion (genion) baldintza hauetan partida jokatzeari. Baina erreflexuak eta buruargitasuna falta izan zitzaizkigun une hartan.

Zertara dator aitajaunaren batailatxo hau, galdetuko du norbaitek. Aitajaunak ere desahogatu behar izaten du noiz edo noiz, maitia; hartu eta hartu ibili gara urte hauetan guztietan, eta noizean behin ostikada batzuk jaurtitzea komeni zaigu, airera bada ere. Kontua da hamabost urte geroago protagonista berdinak ditugula: Gorrochategui eta Velaza, eta itzalean Lakarra, aita espiritual¹⁴. Eta ez dira kointzidentzia bakarrak. 2006an, Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologoen, filologoen beharra ikusi zutenean, ez zuten Lakarrarengana jo, Hizkuntzalaritza Historikoko Katedratikoa eta Mitxelena handiaren oinordekoa izan arren, Knörr eta Gorrochateguiarengana baizik. Badakigu ez zitzaizola batere gustatu. Eta oraingoan ere gauza bera gertatu da. Aranzadik Gorrochategui eta Velaza hobetsi ditu. Baina nola liteke! Hamaika ikusteko jaio ginen! Normala bizkaitarra zapuztuta sentitzea.

Irulegiko Eskuaren gaia esne-bitsetan egon den garaian -euforiak luze iraun du oraingoan-, jende askok galdetzen zuen: “Lakarrak ez du ezer esan behar?”, “Bizi da?”,

¹⁴ Kanpotik ikusita, pentsa daiteke Gorrochategui eta Lakarraren arteko harremanak ez daudela bere onenean. “Seguir por el camino contrario nos llevaría a caer en bongo-bongos y autosugestiones [...] contamos con un corpus nada despreciable [...] si nos tomamos la molestia de estudiarlo con la atención que se merece...”, eta abar, gogor samarrak iruditu zaizkigu lankide eta irizkide bati aurpegiratzeko.

“Zer iritzi ote du?”. Mintzatu da azkenik, urtebeteko isilaldiaren ondoren. Eta ikusi dugu nola. Oso prebisiblea, dena den. Zaharrak berri, Santxo adiskidea.

Neure uste batzuk Irulegiko Eskuaz

Idazkunaren neure bertsioa emateko tentaldia izan dut, baina ikusitakoak ikusita, nahiago paso egitea. Edozeinentzat erronka zaila da testu hau deskodetzea, eta are zailagoa hainbeste adituren hainbeste bertsio kontrajarri irakurrita gero. Hasieran esan bezala, idazkun gehiago agertu beharko da konparazio bidez testua interpretatu ahal izateko, esku-argi gehiago beharko da Eskua argitzeko.

Baina, honaino helduta, ezin etsi nire uste batzuk plazaratu barik. Usteak dira, irudipenak, ez nuke nire eskuin eskua jokatu. Lehenik, iruditzen zait hasieran Gorrochateguik eta Velazak proposatutako irakurketa dela zuzenena. Eta bertsio puntuatua hobetsi behar dela. Eta ez duela *sorioneke* jartzen, ezta bertsio esgrafiatua aintzat hartuta ere. Bigarrenik, harrigarria iruditzen zaidala bigarren lerroaren garbiketarik ateratako ondorioa. Ez dagoela *kuneker´* hobesteko arrazoirik, lehen irakurketako *d/tenekebe* dela zuzena. Eta ez direla bi egile egon, bakarra baizik. Egileak lehenik marrak egin zituela eta gero puntuak.

Eskuaren sinbologiaz luze mintzatu ziren bi filologoak eta Aranzadiko arkeologoak aurkezpen egunean zein argitaratu duten liburuan. Funtzio babeslea, *apotropaikoa* izango zuela esan zuten, eta horretaz behintzat zalantza handirik ez zegoela zirudienean etorri da Beltranen txosten apurtzailea. Goian ikusi dugu hasierako bertsioarekin bat egiten duen Luis Silgo arkeologo eta iberistaren iritzi landua.


Testuaren interpretazioaz, iruditzen zait dena esana dagoela Fontes-eko txostenez. Ez da inor jarri testu osoari zentzua bilatzen. 2022an esaten zen bi hitz bakarrik ulertzen zirela, *sorioneku* eta *eraukon* (agian). Orain bat bera ere ez, hori diote behintzat EHUtarrek.


Hartsuagak eta Bizkaiko Euskal Filologo Taldeak Erronkari-Zaraitzu aldeko hizkeraren antza hartu diote eskuaren euskarari. Gauza batzuetan bat datoz eta beste batzuetan ez. Bat datoz *d/tenekebe* ‘denek/dena hemen’ ulertzeko orduan; *eseakar´i ere* antzera ikusten dute, *ez ahakarri*, *ez akartu*, hau da, ‘ez haserretu’. *er´aukon* ere berdintsu interpretatu dute: *Eukik zorion/ Ondo pasa*. Beraz, nahiko sintonian daude bi interpretazioak parte batzuetan.

Josu Lavinena ez da hain arrazoitua, eta arazo handiak bila dakizkioke hitzez hitz joan ezkerro, baina zentzu aldetik agian bera da sinpleena eta koherenteena: “Zorionekoak etxe honetara ekarriak izan garen denok”. Beste gauza bat da dianan jo duen ala ez. Nik, egia esan, ez dakit hiru hauetatik zein hobetsi. Dena dela, gorago esan dudan bezala, Joseba Butroek bere atalak.eus webgunean egin duen azterketa iruditzen zait orain arteko landuena. Baina bat egiten dut lanaren amaieran ezarri dudan Eduardo Aznarren Iritziarekin.

Hasiera-hasieratik badut uste bat, eta ez zait burutik kendu: *eseakar´i er´aukon* ‘etxe(r?)a ekarri zion’ ez ote den hitzez hitz. Bestalde, **eze = ez** ote da? Gorrochateguik

aurkezpen egunean bertan jarri zuen partxea zauriaren aurretik: inori ez dakiola bururatu *etxea* irakurtzea, artikulua eta guzti. Negazioa izan omen daiteke **eze**, egungo **ez**, alegia. Gero ere (Aiestaran 2022: 70) zera irakurtzen diogu “Sekuentzia hasierako **ese** ezeztapenaren adierazpidetzat har daiteke”. Mitxelenaren hipotesia baieztatuta geratu dela diote hizkuntzalari askok. Ez dut ezetz esateko argudio handirik, baina *baina* batzuk ipiniko nituzke. Oraingoan, dirudienez, ez dago kronologia eta geografia arazorik, ez da problema Bizkaia mendebaldean soilik agertu izana antzeko zerbait hamasei mende geroago. **Eze**, nik dakidala, ez dago SEKULA dokumentatua negazio gisa, **ze** baizik. *Refranes y Sentencias*-en (1596) agertzen da **ze**, eta XVII. mende hasierako bizkaierazko autore banaka batzuetan, nagusigo osoa duen **ez**-en ondoan beti ere: *Refranes*-en **ez** 63 aldiz agertzen da, **ze** 16 aldiz¹⁵. **Ez** besterik ez dago euskarazko lehen testuetan. Iruña-Veleian (III. mendea) ES TA (‘ez da’). Donemiliagako Glosetan (X-XI. mendea) *guc ajutu ez dugu*. Matin Zalbaren gutunean (1416) **ez** *nayz beldur*. Etxepare-n (1545) edo Lazarraga-n (XVI. bukaera), **ez** da negazio-hitz bakarra.





- 1) Eduardo Aznar Martínez. “Las glosas emilianenses en euskera: un problema resoluble”. Errioxa.com.
- 2) Ostracabase.com. IR-16365a

Esanikoak esanda, ikusten dugu Hartsuaga eta Bizkaitarrak bat datozela funtsean azken zatia interpretatzeko orduan: “ez haserretu, ez liskartu, ondo pasa, gozatu”. Lavinek berriz “etxea, ekarri zion” ikusten du. Garbi dago lehen biak zuzen badaude Lavin oker dagoela; eta baliteke, zergatik ez, denak oker egotea ere. Edozein modutan eskertzekoa eta txalotzekoa da ikerle askok egin duen ahalegina.

¹⁵ Joseba Lakarra Andrinua. *Refranes y sentencias (1596). Ikerketa eta edizio kritikoa*. 1996. Euskaltzaindia.


Bi kasuen arteko antzak eta diferentziak

Iruña-Veleian hirurehundik gora “grafito berezi” agertu ziren aztarnategiko leku ezberdinetan 2004-2006 epean, horietako berrogeita hamar bat euskarazko testuekin. Irulegiko Eskua pieza bakarra da. Aurkikuntza biak dira inportanteak, jakina, baina iruditzen zait Iruñako corpusak beste pisu bat duela euskararen historiarentzat zein beste jakintza arlo batzuentzat. Aurkikuntzaren gorabeheraz, Berrian eta beste hedabide batzuetan argitaratu zidaten [Irulegiko Eskuaren zaplaztekoa](#) artikulutik zati bat bereizi dut:

“Ezin burutik kendu Eliseo Gil eta Idoia Filloy egun hauetan. *Inkiszio berriaren biktimak* deitu nien nire liburuaren eskaintzan. Ezin ziren ontzat eman ostrakak idazkunen argazkirik ez zegoelako lurretik irteten. Mila aldiz argudiatu zuten kare-geruza lodiz bilduta agertzen zirela eta hura kendutakoan garbitze-prozesuan ikusten zituztela. Oso tamaina txikiko piezak zirela, gainera. Alferrrik. Epaituak eta kondenatuak izan ziren, eta orain esne-bitsetan dabiltzan hedabide eta pertsona askok ere parte hartu zuen harrika-saioan. Idazkun hau ere karez estalia zegoen eta garbitzerakoan agertu zen, baina hala ere inork ez du zalantzan jarri benetakotasuna, zorionez”.



Eskua, garbiketa hasia zelarik (Carmen Usua)



IVko grafito bat garbitu ondoren (ez guztiz)

Merezi du gai honi buruz [Ostracabase](#) webgunean Eliseo Gilek eta Idoia Filloyk ematen dituzten azalpenak irakurtzea. Indusketa lanetan ibili denak badaki pieza gehienak lokatzaz edo/eta kare-geruzaz bilduta agertzen direla. Ikusi goiko argazkiak.

Ezkerrekoa, Carmen Usua zaharberritzaileak ateratakoa da. Azken batean, bera izan zen idazkunaren aurkitzailea, lurretik irteten eta sei hilabetera. Egia da badagoela Leire Malkorra arkeologoak pieza lurretik ateratzen duen unearen grabazioa eta argazkia.¹⁶

¹⁶ Aranzadik zuzen egin ditu gauzak, ez dago zalantzarik. Txalotzekoa da. Nolanahi ere, kontsultatu ditugun arkeologoek dioskute garai bateko indusketetan ez zela hain ezohikoa arkeologia munduan hurrengo egitea: lurretik aterata gero konturatzen zirenean pieza bat baliotsua zela, “itxurak egin beharrean” aurkitzen zirela, eta berriz lurrez estali eta “berrinduskatu” egiten zela, argazkia edo bideoa atera ahal izateko.

Zuhur jokatu zuen Aranzadik, zorionez. Iruña-Veleian ere gauza bera egin zen pieza banaka batzuekin. Eta gehiagorekin egingo zen baldin eta gero etorriko zenaren susmo txikiena izan balute. IVko “eskarmentuak” eraman ditu Aranzadi eta beste guztiak horrelako babes neurriak hartzera.

“Urak eta egiak bere bidea egin ohi dute, lehentxeago edo geroxeago”

Hori dio behintzat esaera zaharrak. Eta itxaropen horrek eusten gaitu bizirik. Batzuk deseroso sentitzen dira Iruña-Veleia eta Irulegi konparatzen ditugunean. Izan ere, bertsio ofiziala irentsi zuten, beti ere gaian sakondu gabe, eta orain, Irulegiko Eskuaz zuten iritzia, aurkezpen eguneko bertsioak hauspotua, EHUko filologoen hankaz gora bota dietenean, atsekabetuak eta noraezean sentitzen dira, eta askok galdetzen diote bere buruari ez ote zuten arinegi jokatu Arabako grafitoen gaian.

2017an argitaratu zidaten Argian “[Iruña-Veleia, XXI. mendeko Altamira](#)” artikulua.

Hango bi pasarte ekarriko ditut hona:

“1889an hil zen Sautuola, denbora baino lehen zahartuta, etsipenak eta tristurak jota. Baina 1902an antzeko pinturak agertu ziren Dordoinako kobetan, eta orduan bihurtu ziren Altamirakoak benetako. Cartailhac-ek, hanka-sartzeaz jabetuta, alarguna eta alaba bisitatu zituen eta pinturak ikusi. “*Mea culpa d’un sceptique*” izeneko idatzi famatua argitaratuz eskatu zuen barkamena, egindako kalteak atzera bueltarik ez izan arren. [...] Antzeko piezak agertu beharko ote dute beste nonbait, Frantzia adibidez? Honaino helduta, jar gaitezen hemengo indusketa batean aurtengo udan euskarazko grafitoa aurkitzen duen arkeologoaren larruan. Ai ama! Zer egin?”.

Gezurra badirudi ere, Iruña-Veleiakoa gertatu ondoren, arrisku handiko diziplina bihurtu da arkeologia, eta normala da segurtasun neurri guztiak hartzea aurkikuntza bat publiko egin aurretik. Eta hala ere, ikusi dugu zer ari den gertatzen Irulegirekin. Nolanahi ere, fedea izan behar dugu arkeologoen eta pentsatu ez dituztela ezkutatu aurkikuntza deserosoak, nahiz eta arazo iturri izan eurentzat.

Egi-egia aitortu behar badut, ez zait batere harritu gertatutakoa, eta neurri batean poztu ere egin naiz, eta ez masokismoz. Zenbaiten espiritu kritikoa iratzartzeko balio izan du, eta badakit bat edo beste hasia dela Iruña-Veleian gertaturikoa beste begi batzuekin begiratzen, grafitoen argazkiak arakatzen eta bateko eta besteko liburu eta txostenak aztertzen. Ez da gutxi.

Honek ez du esan nahi baikorregiak garenik. Sistemak iraun edo gora egin nahi duenak ofizialtasunari jarraitu ohi dio gehienetan, jakin baitaki oso erraza dela disidentea isilaraztea eta indargabetzea. Iritzi propioa izatea, egiazaletasuna, “zientzia” eta abar oso ondo daude, baldin eta norberaren karrerarako oztopo ez badira. Eta filologoen belaunaldi berriak ez digu, salbuespenak salbuespen, konfiantza larregi eskaintzen. Baina, esaerek dioten bezala, urak eta egiak bere bidea egiten dute, gezurra esan nuen Getarian eta ni baino lehen zen atarian, eta jaioko dira berriak.

Garbi dago hau fondoko lasterketa dela, eta fondoko lasterkari asko dago, zorionez, gure herri honetan.